


KUTARROKO BATERIA
C MAILA

SAN MARKO BIDEA zk./g.



Luis Nieva Quiñones, ingeniari militarra, 1888.

Deskribapena

Hirugarren Gerra Karlistaren ondorengo gerra inguruneari dagokiola, Kutarroko bateria Oiartzuneko eremu lubakituaren multzo gotortuaren zati da. Bateriak San Marko gotorlekuaren ekialdean +210 kotan kokatutako muino bat okupatzen du, lur erauzketa eta lubeten bidez sortua, dagozkion parapetoekin; aipatutako San Marko gotorlekuari lotutako bateria osagarria, Oiartzuneko eremu lubakituari atxikitako unitateetan sartutako artilleria piezak hartzera bideratuta zegoen. Bateria maila desberdinetako hiru plataformak osatzen dute –ertzetako bietan aterpe lubaki bana daude–, 10 x 5 m-ko aldeko oinplano angeluzuzeneko zaingoaren gorputzak eta harkaitzean induskatutako munizio ordezkoak.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
 - Plan Berezi honen C babes mailan integratzearekin loturikoa.
- 2.- Erregimen espezifikoak.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Elementu edo zati iraunkorrak: Kontserbatzen diren hondar guztiak.
 - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Azterketa xehatu bat eta arkeologikoa egingo da, behar bada, zonan edozein esku hartze mota egin aurretik; azterketa hori idazten ez den artean, bateriaren ingurunea ezingo da aldatu 30 m-ko erradio batean.
 - D. Nahitaezko lehengoratzeak: ez.